

2026/2027 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 2tik 13ra** (biak barne) izango dela 2026-2027 ikasturterako **2 eta 16 urte bitarteko** ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [galdetegi hau](#) betez. Ekarri beharreko dokumentazioa [hemen](#) irakur dezakezu.

Zer da ikastola?

Zergatik Udarregi Ikastola aukeratu? [Ikus hemen hainbat arrazoi.](#) **BAZATOZ?**



Tanta txartela

Aurtengo Kilometroak jaia Lazkaoko ikastolari dagokio antolatzea. Urriaren 4an ospatuko da eta aurtengo leloa *ibilian-ibilian, buelta!* izango da. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari otsailaren 20an banatuko diogula **Tanta**

txartel bat. Boleto gehiago eskuratu nahi izan ezker, mesedez, usurbil@ikastola.eus helbidera idatzi otsailaren 13a baino lehen. Kobrantza errezibo bidez egingo da otsailaren 16ean. Bakoitzaren salneurria **5 €**-koa da eta saria 60.000 € izango da.



Artezkartza-kontseiluaren bilera-data

Datorren **otsailaren 4ean** izango da Artezkartza- Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkartza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Aste oso bat, euskararen munduetan barna, familian

2025eko udaberrian Euskal Herri mailako familia egonaldi ibiltaria antolatu zuten euskaigintzan diharduten hainbat erakundek (AEK, Dindaia, Ebete, Plazara eta Uda Leku).

Edizio pilotu haren arrakasta ikusirik, 2026an esperientzia berritu eta hobetua dakarkite.

Haur eta helduen euskara maila hobetzea eta familiako hizkuntza ohiturak aldatzea helburu, 3 egonaldi antolatu dituzte data ezberdinetan.

Egonaldi hauetan goizetan gurasoak klasean euskara ikasten eta haurrak josten arituko dira; arratsaldetan ekintzak izango dira euskaraz haur eta heldu artean eta iluntzetan gaubeilak eta animazio goxoak izango dira.

Informazio gehiagorako jo ezazue www.plazara.eus/familia-egonaldia/ gunera.

Izena emateko epea: GAUR azken eguna.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3ko eta HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Baso eskolako saioak

Dakizuen bezala, hurrengo ospakizunetarako entseguekin hasiak gara. Horregatik basoeskolako zenbait saio ez ditugu burutuko. Honako hauek baso eskolarik izango EZ diren egunak:

HH4: otsailak 6 eta 13

HH5: otsailak 4 eta 11



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu, beraz, **falta zaretenak makila ekarri**, entseguekin hasi baikara.

Egunean bertan, hurrek baserritarrez jantzita etorri behar dute. Jangelako haurrak guk jantziko ditugu. Haur kopurua handia dela ikusirik, eta berokiekin joango garela aurikusirik, eskertuko genizueke azpitik arropa hauekin jantzita etortzea gure lana errazteko:



-A aukera: azpitik mailak eta jertse batekin etorri. Guk gainetik, gona, berokia eta lepoan zapia jantziko dizkiegu.

-B aukera: azpitik galtza bakeroak edo galtza urdinak. Guk gainetik, berokia, lepoko zapia eta txapela jantziko dizkiegu.

Alegia, ez dela gerritik gorako blusa, ator edo kaikurik behar izango.

Atsaldean ateri egingo balu, herriko frontoian abestuko genuke LHkoekin batera 15:50ak aldera. **Gogoratu haurrak frontoian bertan jaso behar dituzuela.**

Euriarekin, ikastolako frontoian abestuko genuke 16:10 aldera.

LEHEN HEZKUNTZA

Irteera kotrantza

Datorren astelehenean, otsailak 2, **LH 3, 4, 5 eta 6. mailako** ikasleek Txuri Urdinera egindako irteeraren kostua kobratuko da, **9,15 €** (autobusa 4,65 € eta sarrera 4,50 €)



LH 2ko ikasleen irteera

Datorren **ostiralean**, otsailak 6, LH 2. mailako ikasleak Eureka! Zientzia Museora goaz eguna pasatzera.



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4ean, asteartea, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu. Arratsaldean, haurrak baseritarrez jantzita etorri behar dute eta makilak ekarri behar dituzte.

Arratsaldeko 15:50 aldera frontoian elkartuko gara arratsaldeari bukaera emateko, denok elkarrekin abesteko.

Ikasleak frontoian bertan jaso behar dituzue.

Eguraldiaren arabera aldaketak egon daitezke.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteerak

DBH1go eta DBH3. mailako ikasleak Plastika arloan datorren astean Tabakalerara joango dira. Lehenengo mailakoekin ostegunean, otsailak 5ean, eta hirugarren mailakoekin ostiralean, otsailak 6an.

Bertan, Medialab eta hezkuntzako taldearekin kultura garaikideari gerturatu eta lantegi batzuk egingo dira. Hortaz gain, Tabakalerako eraikina ezagutu eta bertan dauden proposamen eta aukerak ezagutuko ditugu.

(Mugi txartela ekarri behar dute eta DBH1eko ikasleak bazkaria)



Irudiak eta stickerrak ezabatu

Azkenaldian dugun kezka baten berri eman nahi dizuegu DBHko irakasleok:

Jakin dugu zenbait ikaslek irakasleen irudiak eta stickerrak WhatsApp edo bestelako aplikazioetatik zabaltzen dabiltzala.

Batzuetan, irudi hauek desagokiak, iraingarriak edo beste pertsona batzuen pribatutasuna urratzen dutenak izan daitezke.

Mugikorraren erabilera egokia bermatzeko, zuen laguntza ezinbestekoa da, gurasook zarete eta mugikorraren jabe eta azken erantzule.

Eskaera honakoa da:

1. Stickerrak edo irudi desagokiak (bereziki irakasleenak) beraiekin batera ikusi eta ezabatzen dituztela ziurtatzea.
2. Haiekin hitz egitea, irudi edo stickerrak zabaltzeak duen larritasunaz eta besteen pribatutasuna errespetatzearen garrantziaz.

Mila esker zuen lankidetzagatik eta guztion segurtasuna eta ongizatea bermatzen laguntzeagatik.



Santa Ageda eskea

Datorren astean, hilak 4 Santa Ageda bezpera izanik, DBHko ikasleak Santaeskean aterako gara herriko kaleetatik. Egurtzegi, Artzabal, Sagardo plaza eta Mikel Laboa plazatik ibiliko gara.

13:00etatik 14:30 bitarte arituko gara koplak zaharrak eta bertso berriak abesten.

Egun horretarako euskal jantzi tradizionala (baserritar jantzia), egoki jantzia eta makila ekarri beharko dituzte. Baserritarrez janzteko tartea hartuko dugu, ez dute jantzita etorri beharrik.

